Justo Garate

Euskal Herrian goimailetako kultur jakintsaz jabetu diren guti horietako bat dugu Justo Garate bergararra. Ekintza gizon ospetsua eta aipagarria. Jakintzaren goimailetara heltzen diren gehienak bezala, harremanetarako eta adiskidetarako erraz prestatzen dena. Baina, bereziki, Justo Garate, maiz Zuzen Garate, eta polemista bezala ere ezta gizon txarra. Besteen hutsak salatzen badaki ere, bereak laster aitortzen dakiena da. Bere jakituria ezta oharkabea eta lehenik harro itxurazko gizona idurituko zaigu, baina berekiko harremanetatik nornahi erraz ohartuko da bere bihotz onez eta humiltasunez. Gainera, beti nornahiri mesede egiteko gertu. Aintzinatik elkarren artean dugun harreman estua dut diodanaren lekuko.

Euskarazko lehen lanetatik lortu nuen berekingo harremana, Mogeli buruz ari nintzela aurkitu bai nuen Justo Garateren iker lanetarako doaina **La época de Pablo Astarloa y Juan Antonio Moguel** eskuratzeaz. Geroztik maite nituen G. Humboldt-i buruz egin zituen lan luze bezain sakonak, bizitzaz, bidaiez eta euskal lanez. Haiek, **Ensayos Euskarianos**-ekin izango zituen bere gaztaroko lanak. Ondorenez etorriko ziren gainerakoak.

Nire euskarazko irakurgaien artean izan nituen Eneko Mitxelena izenordez herbesteratuen kultur aldizkarietan arkitaratzen zituen lanak ere. Geroan, egia esan, Justori pekaturik aurkitzen badiot, euskaraz gehiago ez idaztearena da. Berak, Astarloa eta Mogel aurrez aurre jarri zituenean, bigarrenagan, ekintzarekiko fedea aurkitzen zuen; gazteleraz euskara goraipatzearen ordez euskaraz lanak agertzearena, baina Justo berak Mogelen exenplorik ez du jarraitu. Hala ere, bere garaiko gehienak haina egin du. Gainera, gerrate garaian Euskal Herritik urrundu zelarik ere, bere familiko hizkuntz ofiziala euskara izateari eutsi zion, bere emazte Itziarren laguntzaz, eta seme-alabak euskaraz hezi eta hasi Argentinako puntan. Hor bai agertu duela gogoaren eragina.

Jakintza zaletasuna haurtzarotik omen zekarren Justok. Naturalezaren alderako zaletasuna ere ordukoa omen. Medikuntza ikasketak baztertu gabe eta bere herrianganako maitasunez euskal ikerketeri helduaz. Horrela, urteen buruan, probetxu handikoa izan da bere ekarria eta emaitza.

Jakintza bideetan orotariko gaiez interesatu da, bereziki XVIII eta XIX. mendeetako ikerketaz, historiarako Humboldt-egandik hasi eta karlisten gerratera artekoa bereziki. Oraindik ez dira bi urte **El carlismo de los vascos** deritzan liburua argitaratu zuela. Gainera, Garateren lanak, bere argitasunagatik, gazte bizkorren itxura daramate, liberal idea idekiez.

Langile bezala zer esan? Bizi guztian eten gabe aritu da, han eta hemen, hartaz eta hontaz. Medikuntzaz, biologia eta sikologiaz berrehunen bat lan idatziak ditu eta beste hainbeste edo gehiago filologiaz, etnografiaz eta euskal historiaz. Edozein gaitan sartzen delarik ere maisuki agertzen zaigu. Bere intelekto ahalmenak adierazteko hor dago **Cultura Biológica y Arte de Traducir** (Buenos Aires, 1943) deritzan liburua. Zernahitarik bada hor gizonaren dimensioa eta adimena, zein ta ere jakituria neurtzeko.

Hala, bada beste alderdi guti ezagun bat Justo Garategan: hitzaurregilearena. Liburu askoren hitzaurregilea dugu. Nik lehenengoetarik ezagutu nuena Migel Pelay adiskidearen **El ritmo de la época**-rena izango da noski. Liburua bera ederra bazen ere, hitzaurrea ere ez makala. Geroztik, beste liburu askoren atarietan irakurri ditut J. Garateren hitzaurre bizi, jakitun eta jakingarriak.

Justok, bere polemiketan, etxekoekin zalapartarik atera badu ere, herbesteko zenbait kultur gizonekin izan dituenak nabarmenagoak izan dira eta gehienetan gure herriaren izen onaren alde egia ezpatatzat hartuz. Bere garaian barapalo ondo mereziak eman zizkion Salvador Madariagari, baina baita ere, geroxeago, gutaz hain lotsagarri jarduna den Sánchez Albornozi ere, eta orainago Jorge Luis Borges idazlea ere ezta libratu merezia zuen zigorretik. Borges-ek uste bazuen euskaldunak esnedunak ginela, hemengoen "esnea" probatu beharra izan zuen. Sánchez Albornoz-ek Americo Castroren arabe zaletasuna on hartzerik nahi ez eta horren kontrako arrazoi bidez zibilizatu bakarrak latinaren bidez erromantzatuak zirela uste bazuen ere, amaren semeak nonnahi sortzen zirela ikusi zuen; Madariagak ordea, nonbait ahaztu egin zitzaion zumarrak ez duela frututzat madaririk ematen, bere jatorrizko lurrean behar bezala errotua denean, baina adierazi zitzaion gauzak nola ziren.

Gure herriari buruz eta gure herriaren alde hainbeste lan egin duen Justo Garate, gazterik mugitu zen Euskal Herriko Unibertsitate bat sortzearen alde. Eta, lehen aldiz autonomia lortzeaz, 1936an, bere eskabidezko Unibertsitateak lehen urratsak ematean, Justo han zen irakasle. Duela urte guti, birreraikitzea lortu zenean, bertako buruek, ohorezko irakasle izendatu zuten eta hil nohen 2an, Leioan, **"honoris causa"** doktore izendatua izan da.

Justo, bere larogetaka urteekin ere, buruz argi eta beti lanean, idatziz eta hitzaldiak emanez, bai gure herrian eta bai herbesteetan, bere nortasuna ez ezik gure herriarena ere erakutsiz jarraitzen du.

Ondo merezia zuen doktor "honoris causa" izendapena eta bijoaz gure zoriontasunik kartsuenak bergaraar leialarentzat.

Juan SAN MARTIN

El pasado día 2, en la Universidad del País Vasco, el Dr. Justo Gárate recibió la investidura de doctor "honoris causa". Este sabio vergarés, además de desempeñar a lo largo de toda su vida la profesión de médico, fue profesor de la Facultad de Medicina en el período inicial de la Universidad del País Vasco en el año 36, así como en su largo exilio en Mendoza (Argentina) profesor de Clínica Médica. Su inclinación a las letras ha sido notoria y ha escrito unos doscientos trabajos en temas de la Medicina, pero otros muchos sobre temas culturales del país, sobre filología, etnografía e historia.

Gárate, desde la época de los "caballeritos" y Guillermo de Humboldt hasta Astarloa, Moguel y las guerras carlistas, ha realizado importantes aportaciones a la historia del país. Es autor de numerosos libros pero tal vez, su **Cultura Biológica y Arte de Traducir** *sea la única obra que muestra la dimensión de sus extensos y profundos conocimientos. Es además un agudo crítico y un extraordinario prosista. Hombre estudioso, laborioso y muy por encima de todo hombre de bien. A sus ochenta años publicó su último libro,* **El carlismo de los vascos,** *y a sus ochenta y dos, con mente lúcida, sigue trabajando y pronunciando conferencias dentro y fuera del país.*

Desde estas columnas, reciba nuestra enhorabuena.

Andoni Urrestarazu "Umandi"

Oraindik ez da, zorionez, hil, nahiz eta duela gutxi berari buruzko aipamena egitean Gasteizko egunkari batek iraganeko aldia erabili, "Izan zen" labur bezain zorrotzaz. Ez, ez. Andoni Urrestarazu "Umandi", oraindik bizi bizirik dirauen pertsonaia gaurko artikulu honen ardatz nagusia dugu. Eta ba dut zio bat lerro hauek hari eskaintzeko: Gasteizko Udalak berriki inauguratutako ikastetxe bati gure gizon honen izena eman dio. Honelako ohorerik lortu duen gizakumearen gaineko zenbait xehetasun ematea bidezkoa dela iruditu zaidalarik, noan-beraz harira, Andoni lagun haundia dudala esan ondoren. Euskaltzaletasuncan anaikide izan arren zeharoko aburukide ez dudan Andoni Urrestarazu adiskidea plazaratu nahi dut, erabil dezakedan bitartekorik hoberenaz baliaturik.

1902.ko Uztailaren 16.an jaio zen Arabako Araian. Batxilergoa amaitu eta euskara ikasten saiatu zen. Madrilera doa eta hamar urtetan zehar euskal gaiei lotuta biziko da, gure hizkuntzaren sekretuetan murgil egiten duelarik. 1935.ean Donostiara dator ikasketetan jarraitu ahal izateko, Toribio Altzagaren zuzendaritzapean.

1942.an Gasteizera itzultzen da eta euskarazko ikastaroa antolatu zituen bere etxean, bertan erabilitako gaiak eta baliabideak artxibatzen doalarik. 1953.an Frantziara egin behar du ihes eta Parisen bere lana osotu ahal izateko aukera du. Koldo Mitxelenak aztertu eta orraztu ondoren Julio Urkijo Mintegiak babestu zuen **"Gramatica Vasca"** zeritzan eliztiaren argitarapena. Juanito San Martin, Imanol Laspiur, Bittor Kapanaga... eta beste zenbait euskaltzalek zerikusi haundia izan ei zuten liburuaren kaleratzearekin. 1959.an bigarren argitalpena egin zen eta 1976.an hirugarrena, "Kardaberaz" bazkunak lagunduta. Lehen edizioarekin batera **"Formas verbales vizcainas"** izeneko osagarria argitaratu zuen.

Inolako zalantzarik gabe, horixe da "Umandi"-k sekulan egindako lanik garrantzitsuena. Eliztian oinarriturik milaka izan dira euskararen bidectatik abiatu direnak. Euskarak euki duen gramatikarik hoberenetakoa da Andoinirena.

Soin txiki baina bihotz haundiko gizon honen emaitza ez da, nolanahi ere, liburu hoietan amaitu. 1966.an Baionan dagoela **"Irazkintza"** izeneko aldizkaria sortu eta zuzendu zuen. Euskara, gaztelera eta frantseseraz argitaratutako publikapen honek irakaskintza zuen helburua. Urtebetez iraun zuen, sei ale kaleratu zituelarik. "Urtubia'tar Karmel" izenordea erabili zuen Andonik aldizkariaren zuzendaritzan.

Liburuei dagokienez, aipa dezadan baita ere **"Euzkal Betekizunak"** titulupean kaleratutakoa, euskarari buruzko bere eritzi eta iruzkinak azaltzen dituelarik. "Euskaldunok bat" ezaugarria idazki guztietan darabilen gizon honen aldizkarietako lanak kontaezinak ditugu. Diodan, hasteko, Eusko Jaurlaritzaren "Euzko Deya"-n hogei urtetan zehar izenpetu gabe argitaratutako lanik gehienak "Umandi"-renak zirela. Alderdi, Karmel, Goiz Argi, Euzko Gogoa, Estibaliz, Euzko Lurra, Kardaberaz... eta beste hainbatetan azaldu ohi ditu bere lanak araiar honek, bere izena nahiz izenorde mordoa erabili duelarik.

Atzerritik Gasteizera iristean irakaskintzari berrekin zion, eta zenbait lagunekin "Umandi" izeneko Ikastola ideki zuten. Gaurregun 250 ikaslerekin dabiltza lanean ikastola horretan. Bestalde, Andoniren azkenengotako beste lan bat euskararen ikasgaiak kasetetan grabatzea izan da. Gasteizko "Araba" irratitik lau haizeetara zabaldu ziren ikasgai hoiek gure hizkuntza entzule guztion irispidean ipini delarik.

Andoniren bizitzan garrantzi haundiko beste pertsonaia bat agertzen da, harekin bat eginda beti ihardun duena. Teresa arrebari nagokio, jakina, "Umandi" denaren zutaberik tinkoena, ezpairik gabe. Andoni bezala, euskaragintzan ibilia den emakume zintzoa.

Andoni Urrestarazu "Umandi"k, laurogei urteko araiar langile porrokatua, Arabako euskaldun haundien arteko lekua dauka irabazita, berezko merituei esker. Gaurko lerro hauetan zehar zehazkizun batzu ematea beste asmorik ez nuen. "Umandi"-z luzeago idazteko gai ba da, jakina, eta beste aukera batetan egingo dudala agintzen dut. Bere bizitza euskararen zabalkundeari eskaini dion gizonak hemendik eskain diezaiokegun omenaldi apala merezia baitauka.

Zorionak eta urte askotarako, Andoni.Zure helburua, "Euskaldunok bat", errealitate bihurturik ikusi arte, behintzat.

Jose Mari VELEZ DE MENDIZABAL

«La tarea más importante de los euskaldunes es la de utilizar su idioma, estudiarlo, elevarlo y propagarlo. Nadie puede abandonar esta obligación. El que lo haga, por un motivo u otro, será responsable de la destrucción de nuestro pueblo».

Palabras de un araiatarra de 80 años que, afortunadamente, aún forma parte del mundo de los vivos, a pesar de que cierto periódico utilizó el verbo en pasado al referirse a su persona. Andoni Urrestarazu "Umandi" es el personaje que hoy nos ocupa. El motivo es sencillo: el Ayuntamiento vitoriano ha bautizado un centro de enseñanza recién inaugurado en Arriaga con el nombre de este alavés. Primero que tiene la suerte de ver, en vida, que se le dedique semejante honor.

Nace Andoni en Araia el 16 de julio de 1902. Durante sus estudios de Bachiller toma contacto con el euskera que lo estudia con entusiasmo. Pasa a Madrid y durante diez años profundiza en los secretos de nuestro idioma. En 1935 llega a San Sebastián donde cuenta con profesores de la talla de un Toribio Alzaga, que le ayudan en la consecución de sus objetivos.

Terminada la guerra civil, y con gran entereza y valentía por su parte, comienza a impartir clases de euskera en su domicilio de la capital alavesa. No tarda en tener que hacer la maleta y cruzar la frontera. Se instala en París y allí clasifica todo el material que ha utilizado hasta entonces para la enseñanza del idioma vasco y, una vez revisado por Luis Michelena, se publica en 1955 su "Gramática vasca". Euskerólogos como San Martín, Laspiur, Kapanaga... algo tuvieron que ver en la edición de la obra. Tres han sido hasta la fecha las veces que se ha editado este método de enseñanza del euskera, con gran éxito, habiéndose convertido el mismo como uno de los mejores en su género. Al mismo tiempo que la primera edición publicó un suplemento con el título "Formas verbales vizcainas".

La labor editorialista de "Umandi" no termina aquí, ni mucho menos. Ha publicado "Euskeraren Betekizunak", con comentarios y opiniones sobre nuestro idioma. Además, su labor como articulista es muy de tener en cuenta. Han aparecido trabajos suyos en Euzko Deya, Alderdi, Euzko Gogoa, Estibaliz, Euzko Lurra, Ekin... Fundó y dirigió en Bayona (1966-67) la revista pedagógica "Irazkintza", en euskera, castellano y francés, cuyos objetivos no eran otros que tratar de la problemática del euskera, una ikastola que carecía de medios y el tremendo vacío existente en la bibliografía referente a publicaciones especializadas.

Fruto de sus muchos años de experiencia en el campo de la enseñanza son sus cursos en siete, que han sido utilizados por distintas entidades, entre ellas Radio Alava, que los ha programado para sus oyentes.

A la vuelta del exilio en 1976 se entrega de nuevo a la promoción del euskera en Alava, funda, junto con otros entusiastas y responsables euskaldunes, una ikastola que carecía de todo, en día con cerca de 250 alumnos, en las etapas maternal, preescolar y EGB. Asimismo, en el pueblo natal la ikastola "Umandi" va hacia la realidad uno de los sueños más íntimos de Andoni: la progresiva euskaldunización de la provincia.

No puedo olvidar en esta breve semblanza a nuestro pequeño gran hombre a su hermana Teresa, trabajadora incansable en pro del euskera y animadora constante en la labor de Andoni.

Felicidades, compañero, y que sea por muchos años.